



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

III IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA PLANA 2024-2027

www.ehu.eus

III IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA PLANA 2024-2027

www.ehu.eus

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HITZAURREA

Eva Ferreira UPV/EHUko errektorea

UPV/EHUk bere proiektuaren bereizgarri bihurtu ditu ikerketa eta transferentzia. Hori erakusten du azken urteetan izan ditugun emaitzen bilakaerak. Lehen erakunde ikertzailea gara gure autonomia erkidegoan eta Estatuko bederatzi unibertsitate onenen artean gaude ekoizpen zientifikoari dagokionez.

Ikerketa eta Transferentzia Plan berriaren helburuak dira apustu hori indartzea, gure herrian ikerketa gidatzen jarraitzea eta haren emaitzak hobetzea. Dagokion balioa eman nahi diogu gizarteak egiten duen inbertsioari eta, trukean, geure ekarpena egin haren ongizateari.

2024-2027 urteetarako Ikerketa eta Transferentzia Plana aho batez onartu du UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet unibertsitateko kideei, egin dituzten ekarpenengatik eta laguntza horrek agerian uzten duen konfiantzagatik: horrek proiektu kolektibo bihurtzen du plan berria, euskal unibertsitate publiko osoak onarturiko egitasmoa.

Aldi honetarako oinarrizko helburuak dira: bultzada ematea gure ikerketaren nazioarteko proiektuari eta lidergo sozialari; areagotzea ikertalde finkatuen inplikazioa graduondoko prestakuntzan eta ezagutzaren transferentzian eta dibulgazioan (eta talde horiek Garapen Jasangarriko Helburuekin lotzea); hirugarrenik, bultzada ematea Unibertsitate-Enpresa-Gizarte gelen sareari, aldi berean indartuta gizarte eta enpresa sarearekin elkarlanean aritzeko beste hainbat tresna.

Helburu horiek betetzeko, beharrezkoa da ikerketan laguntzeko espezialisten lantaldea handitzea, gure ikerketa lerro nagusien epe luzerako finantzaketa estrukturalaren egonkortasuna areagotzea (beraz, gure ikerguneak indartzea), eta, jakina, beste ikergune batzuekiko aliantzak sendotzea. Hori dela eta, apustu egiten dugu BERC (Euskadiko Bikaintasunezko Ikerketa Zentroak) eta IBSekiko (Ikerketa Biosanitarioko Institutuak) itunak indartzearen alde, ikerketaren, transferentziaren eta prestakuntzaren arloetan.

Zalantzarik gabe, asmo handiko plan bat da, baina ziur naiz ezarri ditugun helburuak lorgarriak direla bikaintasunarekin konprometituta dagoen gurea bezalako unibertsitate batentzat.

Eman ta zabal zazu

Aurkibidea

Hitzaurrea	2
1. Aurrekariak eta diagnostikoa.....	7
2. Oinarriak eta metodologia	9
3. Planaren operatibotasuna eta zehaztapena.....	11
4. Adierazleak	15
5. Onarpena, jarraipena eta ebaluazioa	19

01. AURREKARIAK ETA DIAGNOSTIKOA





AURREKARIAK ETA DIAGNOSTIKOA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) euskal unibertsitate publikoa da, eta konprometituta dago euskal kulturarekin, gizarte erronkekin eta garapen jasangarriarekin, prestakuntzaren, ikerketaren, ezagutzaren transferentziaren eta toki nahiz mundu mailako aliantzen bidez, jakintzaren adar guztietan.

Berrogeita lau urteko ibilbidean, gure unibertsitatea sendotu egin da eta ospea irabazi du, bai gure artean bai atzerrian. Euskal unibertsitate publikoa Euskal Herriko zientzia ekoizpenaren eragile nagusia da, Ikerbasquek 2023an egindako Zientzia Txostenaren arabera. Gainera, euskal soziometroaren emaitzetan berretsi egin da Euskadin hobekien baloratzen den erakundea unibertsitatea dela, hein handi batean unibertsitate publikoak egindako lanari esker. Gure unibertsitatea munduko 500 unibertsitate onenen artean dago, Shanghaiko rankingaren arabera, puntako ikertalde finkatuak izanik jakintzaren arlo guztietan. Unibertsitatea lurraldearekin lotuta dago aliantza estrategikoen bitartez, hala nola *Donostia International Physics Center* (DIPC) eta Tecnaliarekin egindako aliantzak, Euskampus fundazioaren esparruan. Era berean, nazioarteko sareetan parte hartzen du, hala nola ENLIGHT europar aliantzan, Graduondoko Sare Latinoamerikarrean eta UPV/EHUren indarguneetako bat den Euskampus-Bordele Mugaz Gaindiko Campusean.

Aurreko ikerketa planek (I. Ikerketa Plana 2011-2014 eta II. Ikerketa Plana 2019-2022) bideratu dute UPV/EHUn egindako ikerketaren eta transferentziaren ibilbide orria, egun dagoen tokira iritsi arte.

2019-2022 aldiko II. Ikerketa Planaren azken txostena hartu da diagnostikotzat eta abiapuntutzat Ikerketa eta Transferentzia Plan berria lantzeko. Txosten horren arabera, proposatutako helburuak betetzeari dagokionez, indarguneak honako hauek dira: doktorego

aurreko eta ondoko kontratua duten pertsonen kopurua; defendatutako doktorego tesien kopurua eta, bereziki, nazioarteko aipamena duten tesiak; argitalpen zientifikoen kopurua eta kalitatea; eta lortu diren funtsen kopurua, dela lehiakortasun deialdian bidez, dela transferentzia kontratuen bidez. Txosten horretan hobetu beharreko alderdi hauek nabarmendu dira: *spin-off* kopurua; irakasle-ikertzaileen mugikortasuna; enpresekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako tesien kopurua; eta lortutako ERC *grant* kopurua. Garrantzitsua da kontuan izatea II. Plan hori COVID-19aren pandemia bete-betean gauzatu zela, eta pandemiak eragin handia izan zuela proposatutako I+G+Bko estrategian.

Egungo Plan Estrategikoa (PE) 2022-2025 pandemia ondoko aldi batean ari da garatzen, eta ikerketak eta transferentziak osatzen dute ardatz estrategikoetako bat. Era berean, zeharkako ardatzak Nazioartekotzea, Eraldaketa Digitala, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta Komunikazioa dira, guztiek ere lotura handia izanik ikerketarekin eta transferentziarekin.

Inguruneko faktoreei dagokienez, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (ZTBP 2030) eta Unibertsitate Sistemaren Plana (USP) 2023-2026 nabarmentzen dira. ZTBP 2030 planean, ikerketa eta berrikuntzako estrategia erakunde publikoekin, enpresekin, unibertsitateekin, ikerketa zentroekin, teknologia guneekin eta eragile sozioekonomikoekin partekatzen da. Bestalde, USP 2023-2026 planean, euskal unibertsitate publikoaren finantzaketa egitura definitzen duten oinarri estrategikoak eta jarduera garrantzitsuenak zehaztu dira.

Ikerketa eta transferentzia plan berria goian deskribatu dugun testuingurutik abiatzen da, eta estrategiak eta jarduera ildoak proposatzen ditu 2022-2025 Plan Estrategikoaren ikerketa eta transferentzia ardatzean planteatutako helburuak bete ahal izateko.

Simple

$$(n^2 + n) + n^2$$





02. OINARRIAK ETA METODOLOGIA



OINARRIAK ETA METODOLOGIA

III. Ikerketa eta Transferentzia Plana 2024-2027 jardunerako plana da, 2022-2025 Plan Estrategikoaren ikerketa eta transferentzia ardatzean planteatutako helburu eta ekintzetan oinarritzen da, eta USP 2022-2026 nahiz ZTBP 2030 planei jarraitzen die.

III. Ikerketa eta Transferentzia Plana 2024-2027 egiteko garaian honako hauek hartu dira aintzat:

- 2019-2022 aldiko II. Ikerketa Planaren Azken Txostena.
- 2022-2025 Plan Estrategikoa, baita UPV/EHUn indarrean dauden edo lantzen ari diren gainerako planak ere, bereziki, Euskararen Plan Gidaria, Nazioartekotze Plana, Graduondoko Ikasketen Plana, Komunikazio Plana eta Berdintasun Plana.
- Europar Batasunaren, Espainiako Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren I+G+Bko estrategia.

Testuingurua eta jardun esparrua aztertu ondoren, jarduera ildo orokorrak zehaztu dira eta ildo horiek gauzatzeko modua zehatz-mehatz deskribatu da. Ildo horietan biltzen dira 2022-2025 Plan Estrategikoaren barruan zehaztutako ekintzak, eta ekintza horiek gauzatu helburuak hobeto bete ahal izango dira.

2022-2025 Plan Estrategikoaren Ikerketa eta Transferentzia Ardatzeko helburuak

- H1** Diziplinaz gaindiko lankidetzaren sustatzea unibertsitatearen I+G taldeen artean.
- H2** Bultzada bat ematea ikertalde gutxi edo ikerketa tradizio urria izanagatik kultura aberastasuna sortzen duten jakintza arloei, eremu horiek sendotuz eta egonkortuz.
- H3** Ikertalde berriak bultzatzea, eta ikertzaile berriei pizgarriak ematea, ikertzaile ibilbidearen eredu bat bultzatuz.
- H4** Ikerketa erronkak eta GJHen agenda (2030 EHUagenda) lotzea.
- H5** Bultzada bat ematea gizartearen kultura aberastasunean zuzeneko eragina duen ikerketaren aitortzari.
- H6** Ekintzaitza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea.
- H7** Kanpoko aliantzak indartzea, tokikoak nahiz nazioartekoak.
- H8** Gure unibertsitateak eginiko bikaintasun ikerketaren ikusgarritasuna bultzatzea nazioartean.
- H9** Euskaraz eginiko ikerketa sustatzea, eta beste hizkuntza batzuetan egindakoak euskaraz zabaltzen eta egokitzen laguntzea.

USP 2023-2026 planaren helburuak eta gako nagusiak

USP 2023 planak zazpi jardura ardatz ditu: Bikaintasuneko Zientzia, Unibertsitatea+Enpresa; Unibertsitatea+Euskadi Basque Country; Irakaskuntza Berritzailea eta Kalitatezkoa; Unibertsitate Komunitate Inklusiboa eta Berdintasunezkoa; Digitalizazioa eta Gizarte Eragina. Zazpi ardatz horietatik (bost lehentasunezkoak dira eta bi zeharkakoak), Ikerketa eta Transferentziarekin zuzeneko lotura dute lehenengo biek: Bikaintasuneko Zientzia eta Unibertsitatea+Enpresa. Beste bostak zeharkako ardatzak dira, planaren garapenean planteatzen diren helburuei dagozkienak.

USP 2023-2026 planean, gainera, zazpi helburu estrategiko planteatzen dira, eta HE.4 helburuak lotura zuzena du Bikaintasuneko Zientziarekin: «HE.4. ZTBESeko eragileekin lankidetzan aritzeko formulak indartzea: Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroekin (BERC), Ikerketa Biosanitarioko Institutuekin (IIBS) eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroekin (CIC) harremanak duen potentziala indartu eta aprobetxatzea, sinergiak aprobetxatzeko eta aukerak aztertzeko, ZTBESeko beste eragile batzuekin lankidetzaren formula egonkorak sortzeaz gain, epe laburreko proiektu eta ekimen puntualetatik harago (Euskampus ekimena lankidetzaren formularen adibide ona da, UPV/EHUren, Tecnaliaren eta DIPCen artekoa)».




03. PLANAREN OPERATIBOTASUNA ETA ZEHAZTAPENA



Jarduera plana jarduera ildo zehatzen bitartez definitu eta garatzen da, helburuak betetzeko eta planteatu diren ekintzak gauzatzeko bidean aurrera egin ahal izateko.

Plan honen ideia nagusietako batzuek zeharkako balioa dute eta haren garapenean eragiten dute, haien erreferentziazko balioa dela eta. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, UPV/EHUREN irudi sozialaren aldarrikapena, berdintasun politiken aldeko apustua, unibertsitateko kide guztiak konprometitzen dituen Kode Etiko bat edukitzea eta GJHEN sustapena. Zeharkako balio horiek jarduera ildo zehatzen bidez garatu badira ere, haien maila ildo zehatz horietatik haratago doa. Ildo batzuk bideratuta daude ikerketa jardueretara, beste batzuk transferentzia jardueretara eta beste batzuk, azkenik, batera landuko dira, unibertsitateko beste zerbitzu eta organo batzuekin lankidetzan, kasu batzuetan. 1. irudian ikus daiteke jarduera ildoen sailkapen lausoaren adierazpen grafikoa.



1. irudia: Jarduera ildoen eta haien eremuaren adierazpen grafikoa.

Hemeretzi jarduera ildo ezarri dira, eta bakoitzaren deskribapen laburra egiteaz gain, bakoitzaren helburuak eta gauzatu beharreko ekintzak ere aipatzen dira.

03.1. JARDUERA ILDOAK

3.1.1

UNIBERTSITATEAREN IRUDIAREN BALIOA HANDITZEA ETA SINESGARRITASUNA ETA LIDERGO SOZIALA INDARTZEA

Ikertzaileak kultur arloko eta jakintza zabaltzeko zereginetan aktiboki inplikatzeko sustatuko da, eta gizartean inpaktua duten jardueretan eta gizartearen kultur aberastasunean eta GJHetan zuzenean eragiten duten jardueretan egiten duten lana aintzatetsiko da. Arreta berezia jarriko da Kultura Zientifikoa gizartera zabaltzea xede izango duten egitasmoetan.

Zentzu horretan, jakintzaren eremu guztietako ikerketak, transferentziak eta kultur jarduerak gizartean duten eragina neurtu eta balioesteko tresnak garatuko dira, baita gure ikertaldeek egiten duten ikerketa jardueraren ikusgaitasuna eta ezagutzaren nahiz kulturaren transferentziako jardueraren ikusgaitasuna sustatzeko tresnak ere. Helburu hori betetzeko, bultzada emango zaie gizarte erakundeekin eratutako sare egonkorrei. Gure unibertsitateak ikerketa lerroak sustatuko ditu gizarte lidergoaren alorrean, bai eta deialdiak ere, ezagutza eremu horiek indartzeko.

Jarduera ildo hori **H5** helburuarekin (E5.1, E5.2, E5.3 eta E5.4) loturik dago.

3.1.2

IKERKETA ESTRATEGIAK GENERO IKUSPEGIA KONTUAN IZANIK BULTZATZEA, EMAKUMEEN LIDERGOA AREAGOTUTA

UPV/EHUren 2024-2027 Emakumeen eta Gizonen IV. Berdintasun Planaren ikerketa eta transferentzia ardatzarekin bat etorri, plan horrek emakumeen lidergoari erreparatzen dio, batez ere arlo esperimentaletan eta teknologikoetan. Helburu horrekin, ikerketa eta transferentzia deialdi guztietan emakumeen lidergoa eta, bereziki, gazteen lidergoa sustatzen duten mekanismoak txertatuko dira, eta generoen arteko oreka sustatuko dute ikertaldeetan. Halaber, zeharkako ikuspegi feministak garatuko dira, eta, bereziki, ikerketa eta transferentziako proiektuak eta ekimenak, genero, berdintasun eta zaintza gaien inguruan. Monitorizatu egingo dira UPV/EHU 5. GJHri lotuta genero ikuspegiari buruz egiten diren ikerketa proiektuak.

Era berean, emakume akademikoen lidergorako prestakuntzako eta laguntzako AKADEME programarekin jarraituko da; programaren xedea emakume akademikoen autolidergo eta lidergo gaitasunak garatzea da, ikerketaren, irakaskuntzaren eta transferentziaren arloko erantzukizuneko postuetan sar daitezen eta luze gera daitezen haietan.

Jarduera ildo hori **H3** (E3.4) eta **H4** (E4.1) helburuekin loturik dago.

3.1.3

PORTAERA KODE ETIKO BAT BULTZATZEA ETA LAGUNTZA ETA BABESA EMATEA IKERTZAILEEI, IKERKETAREN ALDERDI ETIKO GUZTIETAN

Kode etikoaren jarraipena eginez, bermatu egingo da unibertsitatean eginiko ikerketaren eta transferentziaren helburua izatea gizartearen eskaera eta premiei erantzutea, askatasunaren, ekitatearen, gardentasunaren eta etikaren irizpideetan oinarrituta. Nolanahi ere, ikerketek, Estatukoek nahiz nazioartekoek, bete egingo dituzte UPV/EHUren Kode Etikoan ezarritako jarraibideak. Berezi, unibertsitateak ez du babestuko indarkeria edo gerrak susta ditzakeen inolako jarduerarik.

Prestakuntza ekintza zehatzak egingo dira, gizakiekin, animaliekin eta agente biologikoekin eginiko ikerketaren alderdi etikoen arloan, bai eta datuen egiazkotasunari, ikerketaren onurei edo helburuen interesari loturiko gaietan ere. Laguntza eskainiko da proposamenak egiteko, proiektuak justifikatzeko eta emaitzak argitaratzeko, hala eskatzen bada. Ekintza hauek bereziki graduondoko ikasleentzat eta prestakuntzan dauden ikertzaileentzat izango dira, ikerketari loturiko gai etikoen inguruan kontzientziatzeko.

Jarduera ildo hau lotuta dago **H4** helburuarekin (E4.1) eta **H5** helburuarekin (E5.2).

3.1.4

IKERTZAILEEN KARRERA ETA DOKTOREGO AURREKO ETA ONDOKO IKERTZAILEEN TALENTUA ERAKARTZEKO ESTRATEGIAK DEFINITZEA ETA FINKATZEA

Ikerketa irakaslearen figura garatuko da, ikertzaile doktore iraunkorren promozioan sartzeko bide gisa. Era berean, berrikusi egingo da izen handiko deialdietan R3 egiaztagiria lortu duten doktorego ondoko ikertzaileak unibertsitate sistemara sartzeko prozedura, trantsizio horretan laguntzeko bideak aztertuz, bereziki ikerketa tradizio txikia duten jakintza arloetan, betiere Plantillaren Plan Gidariko definizioarekin koordinatuta.

Nazioarteko talentua erakartzeko *Human Resources Strategy for Researchers (HRS4R)* estrategiaren esparruan zehaztutako ekintza planari jarraituko zaio, eta gizarte eragileekiko lankidetzan jarraituko da, aldi baterako ikertzaileek lan baldintza egokietan gara dezaten beren karrera.

Nazioarteko talentua erakartzeko estrategia bat etorriko da prestakuntzaren eta atxikipenaren aldeko apustuarekin, batik bat, intereseko arloetan, graduondoko prestakuntza ibilbide berriak sortzea sustatuta, Euskadiko ingurune zientifiko-teknologikoaren beharrak aintzat hartuta.

Jarduera ildo hori **H3** helburuarekin (E3.3 eta E3.5) loturik dago.

3.1.5

IKERKETA INTENTSIBOKO ZENTRO PROPIOAK (IIZP) BULTZATZEA ETA INSTITUZIONALIZATZEA

UPV/EHUK IIZPen sorrera bultzatzen jarraituko du, unibertsitateak nazioarteko sailkapen zerrenda ospetsuenetan (Shanghai rankinga edo Stanforderko Unibertsitateko zerrenda, esate baterako) duen posizio ona finkatzen laguntzeko eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sistemaren garapenari egindako ekarpena indartzen laguntzeko. Zehazki, honako hauek dira planaren helburuak: bikaintasuneko ikerketa jarduera agerian jartzea; IIZPak gobernu organoetan ordezkatzeko; dauden zentrozen lidergoa indartzea; bikaintasun kategoria areagotzea; IIZP marka bultzatzea «UPV/EHUko BERC» gisa; IIZPak UPV/EHUren erreferente izatea ikerketa eta berrikuntzako herri estrategiekin lerrokatuta; IIZPetarako aukera berriak definitzea.

Jarduera ildo hau **H1, H4, H5, H6**, eta **H7** helburuekin lotuta dago, bereziki E1.4 ekintzarekin. Gainera, zeharka lotura du 2022-2025 PEko ekintza askorekin.

3.1.6

AZPIEGITURAK, EKIPAMENDU ZIENTIFIKOAK ETA IKERKETA LABORATEGIAK HOBETZEA, ABANGOARDIAKO IKERKETA SUSTATZEKO

Unibertsitateko azpiegituren urte anitzeko planean eraikin berriak aurreikusten dira, hala nola Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea edo Korta II eraikina, eta ikerketa laborategi berriak egongo dira horietan, lehendik dauden azpiegiturak indartzeko. Ikerkuntzako eraikinetan dauden espazioak berriro esleitzeari ere ekingo zaio, ikertalde finkatuen eta IIZPen egungo egoerarekin lerrokatuta. Testuinguru horretan, bereziki bultzatuko da Europako finantzaketarekin (adibidez ERC grants) lortutako ekipamendua ezartzea, edo IIZPei lotutakoak. Bereziki Hitz eta EHUQC gunek hornituko dira.

Zentroi kontsulta egingo zaie SGiker-ekin batera landu daitezkeen behar komunak detektatzeko, eta gainera, aholkularitza, prestakuntza eta laguntza eskainiko zaie lokalak akreditatzeko eta biosegurtasunaren arloko araudiari egokitzeo.

Jarduera ildo hau **H1** (E1.4), **H6** (E6.3) eta **H7** (E7.4) helburuekin lotuta dago. Era berean, 2023-2026 USPan, Bikaintasuneko Zientziaren ardatzeko giltzarrietako bat da unibertsitatea European erreferentziazko ikerketa ahalmenez hornitzea ahalbidetzen duten ikerketa azpiegituren sorreran aurrera egitea.

3.1.7

ZIENTZIA IREKIKO JARDUERAK SUSTATZEA, IKERKETAREN EMAITZEN INPAKTUA ETA ERREPRODUZIGARRITASUNA AREAGOTZEKO BIDETZAT

Sarbide irekian argitaratzen laguntzeko apustua egin da eta, horretarako, argitaletxe nagusiekin eraldatze akordioak egin dira, sarbide irekiko argitalpenen APC (*Article Processing Charge*) kostua ordainduta. Akordio horien garapena aztertuko da, beharren eta emaitzen ebaluazioaren arabera. Nolanahi ere, helburua izango da sarbide irekian argitaratzeko baldintzak hobetzea eta horretarako baliabideak pixkanaka handitzea.

Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala (ADDI) erabiltzeko eta eskuratzeko laguntza areagotuko da, ebaluazio eta finantzaketa irizpide berriak kontuan hartuta. Irizpide horien arabera, ikerketaren emaitzak gordailu irekietan argitaratu behar dira.

Unibertsitateko Bibliotekak ere datuen gordailu instituzional bat abiarazteko prozesua hasiko du, ikerketetako datuak kudeatzen lagunduko duten zerbitzuak eman ahal izateko eta datu horiek argitaratzeko azpiegitura egokia izan ahal izateko, betiere analisiak berrerabili eta erreproduzitzeari buruzko Europako eta Estatuko jarraibideen arabera.

Jarduera ildo hori **H6** (E6.2) eta **H8** (E8.2) helburuekin loturik dago, eta honako hauekin ere bat dator: HE 2021-2027, 2023-2027 aldirako Zientzia Irekiaren Estrategia Nazionala (ENCA) eta Open Science Euskadi estrategia; azken hori nahitaezko ekimentzat nabarmentzen da USParen Bikaintasuneko Zientziaren ardatzean.

3.1.8

IKERKETA JARDUERA OROREN NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEA

Giza baliabideen (doktorego aurreko ikertzaileak eta doktorego ondoko ikertzaileak) deialdiek nazioarteko osagai bat izango dute, eta gutxienez egonaldi bat eskatuko da eta mugikortasunerako laguntzak egongo dira. Bereziki, nazioarteko aipamena duten tesiak eta kotutoretzako tesiak bultzatuko dira.

Master eta doktoregoko ikasleen nazioarteko truke programetan plaza eskaintza handitzeko ekintzak egongo dira, bereziki Euskadirentzat estrategikoak diren lekuetan (Europa, Japonia, Latinoamerika eta Kanada, besteak beste).

Europako ENLIGHT Aliantzaren esparruko ekintzak bultzatuko dira, eta Bordeleko Unibertsitatearekiko lankidetzaren indartuko da ekintza espezifikoen bidez, hala nola Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Laborategiei (LTC) lagunduz eta *Horizon Europe* (HE) programako proiektuetan (besteak beste *Cofund Adagio*) elkarrekin parte hartuz. Graduondoko Latinoamerikako Sarearekin eta Euroeskualdearekin lankidetzaren indartuko da, eta ikerketa proiektu bateratuei laguntzeko programak bultzatuko dira. Era berean, HRS4R estrategia garatzen jarraituko dugu, ezarritako ekintza planaren esparruan.

Gainera, jarraipena emango zaio nazioarteko deialdietan (bereziki HE) parte hartzen laguntzeko strategiari, eta bereziki bultzatuko da gure taldeen lidergoa. Ildo horretan, UPV/EHUK eta ERC grantsek koordinatutako proiektuak proposatzen lagunduko da modu proaktiboan, bereziki Osasunaren arloan eta emakumeen lidergoarekin.

Jarduera ildo hau lotuta dago **H3** (E3.5), **H7** (E7.1, E7.2, E7.3, E7.5) eta **H8** (E8.4) helburuekin. Era berean, oso ongi lerrokatuta dago 2023-2026 USPko Unibertsitatea+Euskadi Basque Country ardatzarekin. Zehazki, jarduera ildo honek aukera emango digu hobetzeko II. Ikerketa Planaren bidez eginiko diagnosian detektatutako bi alderdi: zehazki, ikertzaileen mugikortasuna eta ERC *grant* dirulaguntzak lortzea.

3.1.9

IKERKETAREN EBALUAZIOAN AURRERA EGITEKO PROPOSAMENEN BAT EGITEA, ETA EGINDAKO JARDUEREN KALITATEA ETA INPAKTUA MAXIMIZATZEN DUTEN PRAKTIKAK AINTZAT HARTZEA

UPV/EHUK bat egin du CoARA (*Coalition for Advancing Research Assessment*) ekimenarekin. Bost urteko egutegia ezarri du ekimen horrek unibertsitatean ikerketa ebaluatzeko irizpideak, tresnak eta prozesuak berrikusteko, hari atxikitako beste erakunde batzuekin lankidetzan.

CoARAK norabide komun bat ezarri du ikerketaren ebaluazioa eraldatzeko, eta paradigma aldaketa bat lortu nahi da, azpimarratuz inpaktu zientifikoan eta sozialean oinarritu behar dela, barne hartuta adierazle kualitatiboak. Ebaluazio irizpide berri horiei buruzko kontzientzia areagotzeko ekintzak bultzatuko dira, ikertzaile bakoitza kanpoko ebaluatzailea ere badelako aldi berean.

Jarduera ildo honek lotura du **H2** (E2.2), **H3** (E3.3) eta **H5** (E5.1, E5.3 eta E5.4) helburuekin.

3.1.10

ZTBESko ERAGILEEKIN (BEREZIKI BERC ETA IIBS) EGINDAKO AKORDIOAK ETA ALIAZAK BERRITZEA ETA BESTE ERAGILE ZIENTIFIKO BATZUEKIN KOMUNIKATZEKO BIDEAK ZABALTZEA

Plan honen lehen etapetan berrikusi eta egokitu egingo dira UPV/EHUK BERC eta IIBSekin dituen akordioak, bai esparru hitzarmenak bai hitzarmen espezifikoak; horrela, alde biko harremanak definitu eta finkatu nahi dira, betiere bi erakundeek mesedetan eta kontuan hartuta erakunde bakoitzaren berezitasunak. Lankidetzak eta aliantza estrategikoak bultzatu nahi dira, bai eta ekoizpen zientifikoa areagotu, euskal komunitate zientifikoa nabarmendu eta prestakuntzaren, ikerketaren eta transferentziaren arteko loturak indartu ere. Plana indarrean dagoen bitartean, lortutako akordioen jarraipena egingo da, eta bereziki monitorizatu egingo da gune horien eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren, trukearen eta ikertzaileen arteko loturaren egoera eta betetze maila. Jarduera hau CICetara eta ZTBESko beste eragile batzuetara ere zabalduko da gero.

Jarduera ildo honek lotura du **H7** helburuarekin (E7.1, E7.2, E7.3 eta E7.4). 2023-2026 USPan, halaber, Bikaintasuneko Zientziaren ardatzeko giltzarrietako bat da unibertsitatearen eta ZTBESko beste eragile batzuen arteko harremanak areagotzea, arreta berezia jarrita BERC eta IIBSekiko harremanean.

3.1.11

IKERKETA BULTZATZEA INTENTSITATE ETA TRADIZIO TXIKIKO EREMUETAN

Eremu horiek identifikatzeko mapa egiten ari gara, plan honen indarraldiaren bigarren urtea amaitzean bukatuko dena; hau da, 2025ean. Horren arabera, ildo hau gauzatu eta betearazteko egitasmoak finkatuko dira. Gainera, eremu horietan ikerketa bultzatzeko jarduerak egingo dira, doktorego tesietan lagunduko da eta ikerketa bultzatzeko deialdietan diskriminazio positiboko neurriak txertatuko dira, bereziki helburu denean talde emergenteak sortzea edo prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzea.

Jarduera ildo honek lotura du **H2** helburuarekin (E2.1, E2.2, eta E2.3). Era berean, eremu horietako batzuek zerikusia dute Hezkuntzaren eta Osasunaren arloekin, eta horiek lehentasunezkoztat jotzen dira 2023-2026 USPan ere.

3.1.12

EUSKARAZKO IKERKETA SUSTATZEA ETA EUSKARARI ETA EUSKADIRI BURUZKO EZAGUTZAREN ZABALKUNDEA ETA TRANSFERENTZIA AREAGOTZEA

Euskararen IV. Plan Gidariaren ildotik, ikerketaren eta transferentziaren arloan euskarazko doktorego tesiak sustatzen jarraituko da, eta nazioarteko aipamena duten euskarazko tesiak bultzatuko dira. Datuak, baliabideak eta zerbitzuak hobetu eta zabaltzeko ekimenak jarriko dira abian, ikerketa eta transferentzia jarduerak euskaraz egin daitezzen.

Hainbat estrategia garatuko dira euskarazko ikerketak inpaktu akademikoa eta nazioarteko proiektzioa lor ditzan, eta bultzada emango zaie euskarazko argitalpenen itzulpenari eta lokalizazioari. Era berean, beste hizkuntza batzuetan (bereziki ingelesez) argitaratu diren eta gizartean inpaktua duten ikerketa emaitzak euskaraz zabaltzen laguntzeko ekintzak bultzatuko dira; horren adibide dugu *Inpakta* aldizkaria.

Jarduera ildo honek lotura du **H9** helburuarekin, eta hura osatzen duten hiru ekintzekin. Arreta berezia jarriko da Hezkuntzaren arloan, 2023-2026 USPan adierazita dagoen moduan garrantzitsua baita ikerkuntzan euskara erabiltzea.

3.1.13

IKUSPEGIA ETA JARDUERA INTEGRATZEA, IKERTALDE FINKATUAK (GIC/GIU) GRADUONDOKO PRESTAKUNTZAN ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIAN ETA DIBULGAZIOAN INPLIKA DAITEZEN ETA GJHEKIN KONPROMETITU DAITEZEN

Plan honen bidez ikertalde finkatuetan integratutako pertsonen ehunekoa handitzea lortu nahi da, deialdi propioak eginez Eusko Jaurlaritzaren GIC taldearen deialdiaz gain, azken horren osagarri gisa.

GJHeekin eta UPV/EHUren gizarte inpaktuaren areagotzearekin zerikusia duten jarduerak eta ekintzak programatuko dira ikertalde finkatuen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko, gure gizartean eta ingurune sozioekonomikoan ikertalde horien lana ezagutu dadin eta lan horrek gizartearen garapenari eta ongizateari egiten dion ekarpena baloratu dadin. Harreman egonkorak sustatuko dira gizarte erakundeekin, bultzada emateko dibulgazio ekintzei eta haien beharrak kontuan hartzeko ikerketan nahiz hezkuntzan.

Era berean, plan honetan lerrokatu egin nahi dira ikerketako eta transferentziako estrategia eta unibertsitateko graduondoko prestakuntza. Gure ikertalde finkatuek abangoardiako ikerketan indar handia duten arloetan sortzen duten ezagutza zientifikoak oinarri izan behar du prestakuntza erakargarria, eta oinarri horren gainean eraiki behar dira bertako eta kanpoko talentua erakartzeko zimenduak.

Jarduera ildo honek lotura du **H1** (E1.1, E1.2, E1.3, E1.5), **H3** (E3.2), H4 (E4.1, E4.2) eta **H5** (E5.2) helburuekin.

3.1.14

IKERKETAREN KUDEAKETA LANA INDARTZEA

Azken urteetan handitu egin dira ikerketaren bolumena eta barietatea, eta ugaritu, finantzaketa funtsen jatorria. Laguntza espezializatua eman behar zaie ikertaldee, burokrazia txikitu eta efizientzia nahiz koordinazioa handituko dituzten prozedurak zehaztuta. Helburu hori betetzeko, handitu egingo da laguntza teknikarien plantilla eta berrantolatu, Ikerketaren Gestio Zuzendaritza. Baliabideak indartzeko eta espezializatzeko prozesu horretan, kontuan izango dira ere campus bakoitzaren premia espezifikokoak.

Jarduera ildo hau zeharkakoa da eta bederatzi helburuei erantzuten die. Bereziki lagungarri izango da ekintza hauetan: E1.1, E2.1, E2.2, E3.5, E7.1 eta E7.3.

3.1.15

GIZARTE ERAGILEEKIKO KOMUNIKAZIOA ETA EZAGUTZA ZABALTZEKO ETA TRANSFERITZEKO LANKIDETZA SUSTATZEA

Ikertalde finkatuei buruzko informazioa errazago bilatzeko tresnak sortuko dira, kontuan hartuta talde horien lehentasunak, erronkak eta misioak; horren adibide dira atari hauek: ekoizpen zientifikoa, ezagutzaren transferentzia eta eskaintza teknologikoa. Jarduera ildo honetan, elkar ezagutzea sustatzen duten jarduerak bultzatuko dira, baita interes estrategikoko arloetan topaketa eta eztabaida foroak sustatzeko balio duten jarduerak ere, hala nola EHUgunek, Uda Ikastaroak Fundazioak eta Euskampus Fundazioak sustatutakoak diziplinaz gaindiko lankidetzak bultzatzeko. Gainera, deialdi espezifikoak egingo dira lankidetzak hori bultzatzeko.

Deialdi espezifikoak egingo dira Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea proiektuak sustatzeko eta ikasleen bikaintasuneko prestakuntzan, dibulgazioan eta ezagutzaren transferitzean lankidetzak sustatzeko. Dagoeneko finkatuta dauden ezagutzaren transferentzia eta dibulgazio jarduerak bultzatzen jarraituko da.

Jarduera ildo honek lotura du **H5** (E5.1, E5.2, E5.3, E5.4), **H6** (E6.3, E6.4) eta **H7** (E7.2) helburuekin. 2023-2026 USPan nabarmenduta dagoenez, unibertsitateak funtsezko eragilea izan behar du Euskadiren garapen sozioekonomikoan, eta Unibertsitatea+Enpresa ardatzeko giltzarrietako bat da gizarte eragina indartzea eta proiektzioa.

3.1.16

UNIBERTSITATEA-ENPRESA- GIZARTEA GELEN ETA UNIBERTSITATE KATEDREN SAREA SUSTATZEA ETA INDARTZEA, BAI ETA GIZARTE ETA ENPRESA SAREAREKIKO BESTE HARREMAN ETA LANKIDETZA TRESNA BATZUK ERE

UPV/EHU aitzindaria izan da Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea gelen eta katedren sarea sortzen, unibertsitate jarduera partekatzekeo gizartearekin, bultzada emanez hainbat arlori: prestakuntza duala, enpresentzako eta erakundeentzako aholkularitza eta zerbitzuen prestazioa, kontratuak sare produktiboarekin, enpresa deribatuen sorkuntza (*spin-off*), patenteen erregistroa eta ZTBES sareko beste agente batzuekiko lankidetzaz sinergikoa.

UPV/EHUk gizartean eta enpresa sarean duen inpaktua handitzeko helburuaren bidez, bat etorriaz 2030 Agendarekin, indartu egin nahi dira euskal gizartearen eraldaketa eta aurrerabidea, tokiko eta munduko desafio berrien aurrean. Indartu egingo da lankidetzaz gure ikertalde finkatuen eta Euskadin aberastasun eta gizarte ongizate handiena sortzen duten enpresen artean, enpresa horiei erronka zientifiko-teknologikoa garrantzitsuenetan laguntzeko eta haien lehiakortasuna areagotzeko. Lankidetzaz horri esker, handitu egin nahi da UPV/EHUko edozein titulaziotako ikasleen parte hartzea, erronka enpresarial edo teknologikoko unibertsitate ikasgeletan eta ikaskuntza-zerbitzuko eta gizarte konpromisoko ikasgeletan; areagotu egin nahi dira lankidetzaz sinergiak Eusko Jaurlaritzaren Unibertsitatea + Enpresa 2022-2026 II. Euskal Estrategiarekin eta Euskadi 2030 ZTBPrekin, inpaktu sozioekonomiko handiagoa eta emaitza teknologiko-enpresarial hobeak lortzeko; eta berrikuntza bultzatu nahi da, batez ere ETEetan, bai eta STEAM bokazioak ere, nesken artean batik bat.

Gure unibertsitateak, bere deialdietan, sustatu egingo ditu UPV/EHUk euskal gizartean duen lidergoa indartzen duten gizarte erakundeekiko lankidetzaz bideratutako Gelak.

Jarduera ildo hau lotuta dago **H6** helburuarekin (E6.1, E6.2, E6.3 eta E6.4), eta bereziki bultzatzen ditu II. Ikerketa Planaren diagnostikoaren ondorioz ekintzailatzaren eta tesi industrialak lortzearen alorrean zehaztutako hobekuntzak.

3.1.17

ARAUTEGI PROPIOA ALDATZEA, LANKIDETZA ERRAZTEKO IKERKETAN ETA TRANSFERENTZIAN, ETA TALENTUA ERAKARTZEKO

Azken bi urteetan, araudi aldaketa ugari onartu dira, eragin zuzena izan dutenak unibertsitatearen gobernantzan eta funtzionamenduan; bereziki, ikerketarekin eta transferentziarekin loturiko gaietan. Arautegiak eta barne prozedurek lege aldaketa horietara egokitu behar dute, beste ikerketa agente batzuekiko lankidetzaren eta ezagutza trukea erraztuz, ahal den neurrian.

Bereziki, aldatu egingo dira unibertsitateko ikertzaileak kanpoko ikerguneetara (eta alderantziz) lotzeko eta atxikitze arautegiak. Berrikusi eta eguneratu egingo dira ere atzerriko ikasleak erakartzeko prozedurak, bai eta graduondoko eta doktoregoko ikasketak proposatzeko eta kudeatzeko arautegiak ere.

Jarduera ildo hau lotuta dago **H3** helburuarekin (E3.3, E3.4), **H7** helburuarekin (E7.2) eta **H8** helburuarekin (E8.4).

3.1.18

BULTZADA EMATEA EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN ATARIA HOBETZEARI ETA GARATZEARI, LORTUTAKO IKERKETA EMAITZAK BISTARATZEKO

Unibertsitatean lortutako ikerketa emaitzen ikusgarritasuna areagotzeko, tresna bereziak sortuko dira ekoizpen zientifikoaren atarian erakutsiko den informazioa zabaltzeko, ikerketa proiektuak eta kontratuak barne, bai eta beste transferentzia emaitza batzuk ere, hala nola patenteak. Erregistroak baliozkotzeko baliabideak areagotuko dira, identifikazio sistema bibliometrikoak erabiliz (hala nola ORCID), eta unibertsitateko kideak kontzientziatzeko kanpainak egingo dira, baliabide hauek erabiltzen dituzten pertsonen kopurua handitzeko.

Jarduera ildo hau lotuta dago **H3** helburuarekin (E3.2, E3.5) eta **H8** helburuarekin (E8.3).

3.1.19

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIAKO LAN GEHIGARRIAK AITORTZEA

Lehentasunez kotzat hartutako ikerketa, transferentzia eta dibulgazio zientifikoko jarduerak aitortzeko, kontuan izango dira merezimenduak barne deialdietan, Banakako Jardun Planean («Jardun») eta ikerketa eta transferentzia seiurtekoak aitortzeko jardueren diseinuan.

Jarduera ildo hau lotuta dago **H2** helburuarekin (E2.2), **H5** helburuarekin (E5.1, E5.3 eta E5.4) eta **H7** helburuarekin (E7.3), eta helburutzat du ere adierazle batzuk betetzean (hala nola HE programako proiektuetan parte hartzea) kontuan hartu beharreko alderdi batzuk hobetzea.



04.
ADIERAZLEAK



04. Adierazleak



¹ Bi balio agertzen direnean, lehenengoak adierazten du II. Ikerketa Planean 2022rako finkatutako helburu balioa; bigarrenak, 2022an izandako benetako balioa.

² Bi balio agertzen direnean, lehenengoak adierazten du 2023-2026 USPea finkatutako helburu balioa; bigarrenak, plan honetan ezarritakoa.

³ Planaren indarraldiaren lau urteetan metatutako balioa.

⁴ 40 urte edo gutxiago.

Zk.	Adierazlea	Oinarri balioa 2022 ¹	Helburu balioa 2027 ²
1	Defendatutako tesien kop.	400/462	435/480
2	Emakumeek defendatutako tesien kop.	249	250
3	Nazioarteko aipamena duten defendatutako tesien %	40	49
4	Defendatutako industria tesien kop.	18	65
5	Defendatutako euskarazko tesien kop.	60	60/70
6	Doktorego aurreko laguntzen onuradunen kop.	635	645
7	Emakumeen % doktorego aurreko laguntzen onuradunen artean	54	52
8	Mugikortasun programetan (4 astetik gorako egonaldiak) dauden lanaldi osoko irakasle-ikertzaileen %	2,11	3,6
9	Marie Curie programatik etorritako (4 astetik gorako egonaldiak) ikertzaileen kop.	53	55
10	GIC A %, Eusko Jaurlaritzaren deialdiaren arabera, GIC guztizkoari dagokionez	71	75
11	GJHekin lerrokatutako taldeen % (GIC/GIU)	47,6	75
12	Emakume ikertzaileek zuzendutako taldeen % (GIC/GIU)	46	52
13	Ikertzaile gazteek zuzendutako ikerketa proiektuen kop.4	98	120
14	Argitalpen zientifikoek kop. (WOS)	3.582	4.000
15	Argitalpen zientifikoek kop. (Scopus)	4.010	4.667
16	Q1 argitalpen zientifikoek % (WOS)	57,1	60
17	Q1 argitalpen zientifikoek kop. (Scopus)	60/67,1	61,5/70
18	Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoek % (WOS)	53,1	55
19	Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoek % (Scopus)	50,2	54,5
20	Sarbide irekian argitaratutako artikuluen kop. (WOS)	2482	3000
21	Sarbide irekian argitaratutako artikuluen kop. (Scopus)	2819	3500
22	Nazioartekoak ez diren deialdietan lortutako baliabideak (M€)	138 ³	170 ³
23	HE deialdietan eta nazioarteko beste batzuetan lortutako baliabideak (M€)	30,6 ³	33 ³
24	Ikerketaren Europako Kontseilutik (ERC) lortutako laguntzen kop.	5 ³	8 ³
25	Transferentziagatiko sarrerak -kontratuak- (M€)	41,8 ³	45,5 ³
26	Sortutako spin-off kop.	52 ³	60 ³
27	Lizentzia eta patenteengatiko sarrerak (M€)	0,6 ³	1 ³
28	EPO eta PCT patenteen kop.	69 ³	80 ³
29	Hedabideetan izandako inpaktuen kop.	13.160	14.600

An archaeological excavation site with workers. A woman in a black tank top is in the background, and a woman in a white t-shirt is in the foreground, looking down. A large blue object is in the foreground. The text is overlaid on a white background.

**05.
ONARPENA,
JARRAIPENA ETA
EBALUAZIOA**



III. Ikerketa eta Transferentzia Plana aurkeztu da Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen 2024ko otsailaren 21eko ohiko bilkuran eta Gobernu Kontseiluaren 2024ko otsailaren 22ko saioan. Ondoren, zuzenketak aurkezteko epe bat ireki da unibertsitatearen bi gobernantza organo horietan, eta arauak egiteko prozeduran parte hartzeko protokoloa aplikatu da, unibertsitateko edozein kidek ekarpenak egin ahal izateko. Halaber, plana aurkeztu zaie sailtako zuzendaritzeari, ikertaldeetako ikertzaile nagusiei eta Graduondoko Batzordeari, 2024ko urtarrilean, otsailean eta martxoan organo horiekin eginiko bileretan. Aipatutako bide horiek erabilia egin diren proposamen guztiak aztertu ondoren, eta inplikaturako pertsonekin hitz egin eta gero, III. Ikerketa eta Transferentzia Planaren azken bertsioa idatzi eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen 2024ko apirilaren 17ko ohiko bilkuran aurkeztu da, onartua izateko. Azkenik, Gobernu Kontseiluan aurkeztu, eta aho batez onartu da, 2024ko apirilaren 24an.

2026. urtearen erdialdera, Planaren tarteko jarraipen txostena egingo da, kontuan hartuta haren indarraldiaren lehen bi urteetan lorturiko emaitzak. Txosten horretan jasoko dira adierazleen balioak, eta kualitatiboki baloratuko dira bete beharreko helburuetan eta egin beharreko ekintzetan eginiko urratsak.

Txosten hori egingo du jarraipen batzorde batek, eta batzorde hori osatuko dute ikerketaren arloan ardura duen Errektoreordetzako bi ordezkariak, transferentziaren arloan ardura duen Errektoreordetzako bi ordezkariak eta graduondokoen

ardura duen Errektoreordetzako ordezkari batek. Ordezkari horiek izendatuko dituzte errektoreorde arduradunek edo eskuordetutako pertsonak. Ondoren, txostena aurkeztuko da Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordean, baloratu eta haren inguruan eztabaida dezan.

Tarteko jarraipen txostena bat etorriko da denboran 2022-2025 Plan Estrategikoaren amaierarekin eta, hala badagokio, Plan Estrategiko berriaren garapenarekin. Une horretan, bi planen arteko lerrokatzea aztertuko da, eta, beharrezkoa izanez gero, dagozkion aldaketak edo neurri zuzentzaileak sartuko dira jarduera ildoetan, edota ildo berriak gehituko dira, Plan hau egokitzeko helburu berrietara.

